

HERNANIKO kronika

2000 urtea
Urriaren 15a
Igandea
Alea: 83

UDAL AURREKONTUAK EZTABAIDAN

Osteguneko batzarrean hartuko dira zerbitzuen inguruko erabakiak

Batzar irekia izango da, aurreko bileretako sektore ezberdinen iritzia aztertu eta erabakiak hartzeko. 20:00etan hasiko da udaletxeko pleno aretoan.



Zaharren egoitzako egongelan irrifartsu.

Udal zerbitzuen inguruko eztabaida osteguneko batzarrekin bukatuko da. Aurreko asteetan sektore ezberdinek (merkatariak, ikasleak, nekazariak, jubilatuek,...) euren eskari eta iritzia azaldu eta eztabaidatu dituzte; ostegunean, berriz, denak elkartu eta erabakiak hartuko dituzte.

IRITZI ETA ESKARIAK

Kultur etxeari dagokionez, bere zerbitzuak zabaltzea eskatu da: liburutegia larunbatetan irekitzea eta kurtsiloak asteburuetan ere izatea besteak beste.

Kiroldegiaren inguruan,

bazkidetza bonoak oso aukera gutxi ematen duela aipatu dute batzuk, kurtsiloetarako gehigarria ordaindu behar baita. Zenbaitek pilotalekua ekintza kulturaletarako oso garestia dela ere (10.000 pezeta orduko) esan du.

SEKTOREKA

Jubilatuak Goiz Eguzkiko parkea garbi edukitzeko eskatu dute; merkatariak Atsegindegi estaltzea, Agustinen konbentu inguruan aisialdirako gunea jartzea eta Donostiako bide gorria Hernaniraino luzatzea; eta auzo elkarteek zaborra lurpeko makinetan biltzea, eta kale garbitzea eta

ZENBAIT ZERBITZU DIRUTAN

■ KIROLDEGIA:

Gastuak: 127.384.898 pzta

Sarrerak: 62s.586.645 pzta

Udalak: 64.798.253 pzta

■ ZAHARREN EGOITZA:

Gastuak: 321.215.035 pzta

Sarrerak: 183.649.800 pzta

Udalak: 137.565.235 pzta

■ HAUR ESKOLA:

Gastuak: 65.973.136 pzta

Sarrerak: 21.850.000 pzta

Udalak: 44.123.136 pzta

■ ZABOR BILKETA:

Gastuak: 86.656.531 pzta

Sarrerak: 37.898.000 pzta

Udalak: 48.758.531 pzta

■ KALE GARBIKETA ETA KOMUNAK:

Gastuak: 123.515.872 pzta

Sarrerak: 0 pzta

Udalak: 123.515.872 pzta

zabor biltzea modu alternatiboan egitea (Hernaniko langabetuen *botsa* bat sortu eta aukera hauei emanda).

Ostegunean, udal gobernuak eskariak betetzeak dirutan zer suposatuko lukeen azalduko du. Ondoren, batzarrera joandako guztiek erabakiak hartuko dituzte udal zerbitzu eta tasa eta prezio publikoen inguruan. Erabakiak plenera joango dira.

Zerbitzuen eztabaida bukatuta, hilaren 30ean inbertsioei buruzkoa hasiko da, berriz ere *sektoreka*. □

ELUR-TXORI ELKARTEA

Azaroaren lauan izango da aurten Sagardo lehiaketa

Hernani eta inguruko 10 sagardogile izango dira.

ELUR-TXORI elkarteak lotu du aurtengo Sagardo lehiaketa. Hemezortzigarrena da aurten eta hamar sagardogile izango ditu lehiaketak: Urnietatik Setien eta Urruzola; Astigarratik Oiarbide; Zubietatik Astiazaran; eta herrikoak Alberro, Rufino, Zelaia, Elorrabi, Iparragirre eta Alzueta.

URRIAK 27 ARTE

Lehiaketako afarian izena emateko epea zabalik dago. Elur-Txoriko bazkideek urriak 27a arte dute; Bazkideekin osatzen ez badira, gainontzeak azaroaren 2a artekoa izango dute.

Sagardotegiko menua izango da eta afaria iluntzeko zortzietan. □

■ 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Hernani Arenas-en kontra gaur Zubipen

Lasaitasuna emango dieten 3 punturen bila saiatuko dira, 17:30etatik aurrera.

JOAN den igandean baino lasaiago ibiltzeko moduan daude jokalaririk txuri berdeak. Aurretik inork irabazterik lortu ez eta, Sestaotik hiru puntu ekarrita, zazpi punture-

kin daude orain; beste hiruk sailkapenean postu erosoan egoteko bidea emango liekete. Eguraldiak galerazten ez badu, gaur arratsaldean jakingo dugu dena. □

Biteri kultur etxeko ikastaroak bihartik aurrera hasiko dira

Aurten, heldu eta gazte, 350ek eman dute izena.

BITERIKO ikastaroetan apuntatu direnek bihartik ekin beharko diete lanari. Aurten 19 ikastaro eskaini ditu kultur etxeak; horietatik lau berriak, eta denera, 16 ikastaro atera dira azkenean. Jende gehiena dantzan eta yogan hasi da; eta pinturak eta tai-chik ere arrakasta handia izan dute.

Bihar bertan hasiko diren ikastaroak hauetxek dira: Umeentzat: dantza eta pintura (9-12 urte). Helduentzat: pintura (sakontzea), dantza, keramika, yoga, altzari berritzea eta argazkilaritza. Beste guztiak, bat ezik, asteartean hasiko dira; eta ostegunean egur taila. □

MARI FA
ARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkolaga 17
943 55 04 89 943 55 27 41
HERNANI

BEGIRA OPTIKA

URBIETA, 8 TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

AMEGAR, C.B.
ETXE TRESNAK

Ispizua, 27- HERNANI

Zuretzat berritu degu!

Ispizua, 27- HERNANI
Telefona (943) 55.11.25 - Faxa (943) 55.16.03

Oialumen errioa atera eta ura taberna eta garajetan sartu da

Auzotarrak hasarre daude udalak, ez lehengoak eta ez oraingoak, ez dituelako erreko zakarrak garbitu.



Oialumen errioa atera eta taberna atarian utzitako lokatzak garbitzen, atzo arratsaldean.

JENDEA gozo zegoen ba atzo Martindegi auzoan! Ordubi eta erdiak aldera erreko gainezka egin zuen. Oialumeko tabernan ura barruraino sartu zen eta etxeetako garajeetan ere bai. Ez omen zen denbora askoko kontua izan, baina, dena blai egin eta beste garai batzuk gogoratzekoa adina bai.


ZAKARRAK GARBITU
Oialume inguruan beti atera izan dira urak erraz; baina, 1997ko ekaineko uholdeek tronko zaharrak ekarri eta taberna ondoko zubia erdi itxia utzi zuen. Auzotarrak aurreko udalalari hura garbitzeko eskatu zioten. "Diario Vascon garbitu zutela jarri bai, eta batera

garbitu ez." Oraingo taldeekin ere hiru bilera egin eta eskatu zieten errikoa behin tzat egiteko. "Eta oraindik garbitzeko!" haserre: "Eskabadora ekarri eta lau orduko lana da, tronkoak atera eta azpia jan!"

Portuko zubian ere ura ia goraino altxea zegoen garaitu horretan, baina, ez zen atera. □

Hernaniko Kronika interneten: www.hkronika.com

Gaurtik aurrera, *Hernaniko Kronika*ren interneteko bertsioa aurkituko duzu, ostegunetik astelehenera 'hkronika.com' helbidean.



BADIRA ia lau hilabete *Kronika* atera zenetik. Gaur pauso berri bat eman du: interneten sartu da, herriko internauten eta herritik kanpora bizi diren hernaniarren sarea. Egunkoa ez ezik aurreko aleak irakurri ere irakurri litezte bertan.

Eskerrik beroenak Jon Garmendia Informatika Aretoko arduradunari. □



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Laguntzaile:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak

HITZ BITAN



Hoz (ateratzen) eta Bermejo (atzean) atzo kiroldegian, lizartza-
rren aurkako partiduan.

✓ PELOTA

Esnalek 22-16 irabazi zuen Bigarren mailako Lauterdiko txapelketarako enpresako sailkapenean. Oar Artetaren aurka jokatu zuen atzo Urrietako frontoian eta Esnalek berak aitortu bezala punta-puntako partidua izan; baina, sailkatzea omen zen garrantzitsua eta hori lortu du. Bestalde, Hernaniko pelotariak atzo jokatu zituzten Gipuzkoako Txapelketako partidua kirol-
gian. Emaitzak bihar aterako ditugu.

✓ BOLEIBOLA

Gazteek 3-0 irabazi zuten Nafarroako Unibertsitatearen aurka. Hernaniko mutilek atzo jokatu zuten Euskadiko Ligako hirugarren jardunaldia eta nafarrak hutsean utzi zituzten, partzialak estu joan baziren ere: 26-24/25-16/25-20. Hirutik bi irabazi dituzte eta sailkapenean goiko postuan daude. Eusebio Lizarazu arduradunak esan digunez, oraindik jokoa ez da nahi bezalakoa, baina, taldea ari omen da sendotzen. □

AGENDA	<p>◆ ERAKUSKETAK <i>Hernaniko Udalaletxea:</i> <i>mende bat zutik</i> Udalaletxean bertan, 12:00-14:00</p> <p><i>Miren Maite</i> billabonarraren kuadroak</p>	<p>ikusgai daude Txema tabernan.</p> <p>◆ MUSIKA Laiotz taldea. Oialumen 20:00.</p>
---------------	--	---

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:	943 550093
▶ Udaltzaingoa:	943 333288
▶ DYA:	943 464622
▶ Autobusak	943 556662
▶ Anbulatorioa:	943 557750

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793
▶ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta, z/g ☎ 943 590802



SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

AUKERAKO AUTOAK

Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Opel Astra 'Caravan' Diesel	NA-AJ
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Renault Expres Diesel	SS-AS
Suzuki 'Todo terreno'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...